

7/2018 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK URRIAREN
9an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

MAHAIBURUA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea.*

1. PRESIDENTEORDEA:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea.*

MAHAIKIDEAK:

Unai Laco Goñi jn., *Agoizko alkatea.*

Karmele Marañón Chasco and., *Arbizuko alkatea.*

Ur Algueró Chivite jn., *Aresoko alkatea.*

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea.*

D. Ángel Obanos Galar, *Artikako Kontzejuko burua.*

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea.*

Luis Alfonso Potestad Tellechea jn., *Aurizko alkatea.*

David Alvarez Yanguas jn., *Castejónko alkatea.*

Nieves Recalde Zaratigui and., *Etxagueko Kontzejuko burua.*

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea.*

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea.*

Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea.*

Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea.*

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua.*

Ezin etorria adierazi dute:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea.*

Ángel Navallas Echarte jn., *Zangozako alkatea.*

Joseba Asirón Saez jn., *Iruñeko alkatea.*

Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea.*

Yolanda González García and., *Vianako alkatea.*

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemezortziko urriaren bederatzian, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalen eta Kontzejuek Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDAA

- 1º.- Aurreko bilkuraren akta onestea.
- 2º.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.
- 3º.- Sektoreko batzordeetako eta kontseiluetako ordezkariak izendatzea.
- 4º.- Garapenerako Lankidetzaren arloko jarduketak 2018-2019an.
- 5º.- Eskubide Sozialetako Departamentuaren, NUPen eta NUKFren arteko hitzarmena hiru ikastaro egiteko.
- 6º.- Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Legearen proiektuari aurkeztutako zuzenketa proposamenak.
- 7º.- Batzorde Betearazlearen hurrengo bilkura beste egun batera aldatzea.
- 8º.- Presidentearen informazioa.
- 9º.- Galde-eskeak

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, alde zuzenetik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

ERABAKI DA:

2018ko urriaren 9an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Eskolatzearen Batzorde Nagusia (2018/09/12).** Ikastetxea aldatzeko eskaerak aztertu ziren, eta Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren 2017-2018ko memoria onetsi.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2018/09/18).** Txostena egin zitzaion Kultura Eskubideei buruzko Foru Legearen aurreproiektuari.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2018/10/02).** Txostena egin zitzaion Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektuari eta Memoria Historikoko Tokiei buruzko Foru Legearen aurreproiektuari.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. Sektoreko batzordeetako eta kontseiluetako ordezkariak izendatzea.

Proposatu da ordezkari hauek izendatzeko ondoko batzorde eta kontseiluetan:

- Nafarroako XXXII. Kirol Jokoak antolatzeko batzordea
 - Pablo Bolea Goñi, Tafallako Udaleko kirol arloko teknikaria.

Orobat, proposatu da ordezkariak aldatzea ondoko batzorde eta kontseiluetan, zeren, zer kargurengatik duten izendapena, horietatik kargugabetu edo aldatu baitituzte, betiere entitateek edo ukitutako kargu berriek aldaketa horiek berresten badituzte.

- Nafarroako Aireportu Koordinaziorako Batzordea.
 - Alberto Ilundain Avellaneda, Noain Elortzibarko Udaleko alkatea, José Ignacio Erro Lacunzaren ordezkari.
 - Ordezkoa, Carmen Casajús, Noain Elortzibarko Udaleko zinegotzia, Nicolás José Subiránen ordezkari.
- Nafarroako Boluntarioen Kontseilua.

- Esther Cremaes Mayorga, Iruñeko Udaleko Garapen Komunitarioaren eta Gizarte Ekintzaren zinegotzia, Manuel Millera Carreraren ordezkari.

ERABAKI DA:

Izendapena adierazitako moduan onestea.

4. PUNTUA. Garapenerako Lankidetzaren arloko jarduketak 2018-2019an.

Proposatu da Lankidetzarako Funtsekin Batzordean erabakitako proposamena onestea, deialdiarekin batera igorri eta aktaren eranskinean jasotzen dena. Ondoren zehazten dira egin zaizkion aldaketa bakarrak.

Juan Jesús Echaidek, zeina NUKFko teknikaria eta Batzordeko kidea baita, hitza hartu eta azaldu du zer jarduketa ildo sartu diren proposamenean. Larrialdiko laguntzari dagokionez, azaldu du Batzordeko kideek proposatu dutela aldaketa txiki batzuk egitea hasierako proposamenean, bi arrazoirengatik: lehenik, Indonesiako hondamendia dela eta, zein ezin izan baitzen kontuan hartu Batzordeak proposamena egin orduko, eta bigarrenak, Zaporea GKErako laguntzarekin du zerikusia, berriki jakin baitugu egun ez duela baimenik beste jantoki bat irekitzeko.

Horregatik, proposatu da larrialdiko laguntza lau multzo berdinetan banatzea, ez hirutan, horren barnean sartuz Indonesiarako ekarpena, eta jakinaraztea Zaporeari ezean, laguntza jasotzeko, jantoki berri bat ireki behar duela. Jantoki hori ireki ezean, proposatu da horri dagokion zatia beste hiruen artean banatzea proportzionalki.

Goldaracena jaunak adierazi du hobe litzatekeela laguntza-proiektu batean erabiltzea gerakina, proiektu desberdinetan baino, horrela laguntza erabilgarriagoa litzatekeelakoan.

Marañon andreak zentzu berean hitz egin du.

Idazkari nagusiak zehaztu du NUKFk lankidetzaren arloan dituen jarduketa ildoak aldatu behar direla horretarako, eta dagokion partida aurreikusi. Une hauetan NUKFren Lankidetzaren Funtsean aurreikusitako jarduketa ildoak betetzen ari dira, eta, zehazki, larrialdiko laguntzetarako aurreikusitako zuzkidura aplikatzen.

Halaber, azaldu da proposamenak bide ematen duela, baldin eta ez bada hondamendirik izaten, Iruñeko Udalak larrialdiko berriazko laguntzarako egiten duen deialdian hautatzen diren proiektuetan eta GKEekin erabiltzeko 2019an NUKFren aurrekontuan larrialdiko laguntzarako zehazten den zenbatekoa.

Álvarez jaunak dudak agertu ditu aurreikuspen hori hondarreko klausula gisa onestearen komenigarritasunaz. Haren ustez, NUKFri dagokio baloratzea zer GKeri eman behar zaion larrialdiko laguntza, eta, behar bada, erabakitzea kasuan kasuko ekitaldian Iruñeko Udalak hautatutako GKEei emanen zaien.

Azpimarratu da NUKFk erabaki behar duela beti nola aplikatu larrialdiko laguntza larritzat jotzen diren gertakizunetan. Hondamendirik ez dagoen urtean baino ez litzateke horretaz baliatuko, aurreikusitako partida aplikatu gabe ez gelditzeko.

ERABAKI DA:

Lankidetzaren Batzordearen proposamenean zehaztutako jarduketaren guztiak onestea, larrialdiko laguntzaren atalean egin aldaketekin, eta jakinaren gainean daudela adieraztea (proposamena akta honen eranskin gisa erantsi da).

5.PUNTUA.- Eskubide Sozietako Departamentuaren, NUPen eta NUKFren arteko hitzarmena hiru ikastaro egiteko

Presidenteak proposatu du berriazko lankidetzaren hitzarmen bat onestea, zeina deialdiarekin batera igorri baita. Azaldu du jarraipena eman gogo zaiola NUPekin eta Eskubide Sozietako Departamentuarekin izan den lankidetzari, zeinak helburu baitu gizarte zerbitzuetako langileei prestakuntza eta espezializazioa eskaintzea.

Oraingo honetan, hiru espezializazio ikastaro egin gogo dira, gizarte zerbitzuen ekintzarako esparruei buruzkoak direnak: Oinarrizko laguntzaren autonomia sustatzea, Oinarrizko laguntzako gizarteratzea eta Arreta ematea haurtzarolari.

Honela gauzatuko da NUKFren lankidetzaren: bere teknikariek parte hartuko dute ikastaroen irakaskuntzan, dibulgazio materiala prestatuko du, eta ekimenaren berri zabalduko du toki entitateen artean, ekimena haien teknikariei baitago zuzenduta.

Azpimarratu da toki entitate guzti-guztiek izan behar dutela horren berri.

ERABAKI DA:

Eskubide Sozietako Departamentuaren, NUKFren eta NUPren arteko lankidetzaren hitzarmena onestea, akta honen eranskinean jasotzen dena, eta gaitasuna ematea presidenteari hura sina dezan.

6. PUNTUA.- Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Legearen proiektuari aurkeztutako zuzenketa proposamenak

Presidenteak jakinarazi du zer zuzenketa-proposamen igorri zaien Parlamentuko talde guztiei toki administrazioa berrantolatzeko proiektua dela eta. Zuzenketa proposamen horiek ekaineko Batzar Berezian hartutako erabakiari heltzen diote, Parlamentuari igortzen baitzaizkio proiektua aldatzeko hitzartu ziren baina Nafarroako Gobernuak bere egin ez zituen proposamenak.

Jakinarazi da irailaren 24an eta 25ean Parlamentuko talde guztiekin egin zirela bilkurak, proposamenak bere gain hartu eta, ezarritako epea bukatu baino lehen, zuzenketa gisa aurkez zitzaten. Jakinarazi da zuzenketak aurkezteko epea luzatu dela zenbait aldiz, Nafarroako Kontseiluari eskatuko txostenaren zain.

Álvarez jaunak galdetu du hori onetsi behar den edo jakinarazpen hutsa den.

Azaldu da horren berri eman dela zuzenketak aurkezteko hasierako epea iragana dagoelako. Zehaztu da Batzarrean erabakitako aldaketa-prosamenak bildu, besterik ez dela egin.

ERABAKI DA:

Adieraztea jakinaren gainean daudela toki administrazioa berrantolatzeko proiektua Parlamentuko taldeei helarazi zaiela, joan den ekaineko Batzar Berezian hartutako erabakiekin.

7. PUNTUA.- Batzorde Betearazlearen hurrengo bilkura beste egun batera aldatzea

Proposatu da Batzorde Betearazlearen hurrengo bilkura beste egun batean egitea, bertan abenduko Batzarreko deialdia eta gai-zerrenda onesteko; izan ere, abenduaren 14rako aurreikusten da batzarra.

Proposatu da bilkura azaroaren 27an egitea, azaroaren 13an egin beharrean

ERABAKI DA:

Batzar Betearazlea azaroan bilkura egiteko eguna aldatzea, 13tik 27ra.

8. PUNTUA.- Presidentearen informazioa.

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Zer jarduketa egin den berdintasun arloan Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin izenpeturiko hitzarmena bete beharrez.
Jakinarazi da 14.000 euroko aholkularitza kontratu bat esleitu zaiola EQUALA enpresari. Prozedura sinplifikatu bat egin zen, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin eta berdintasun teknikariekin koordinatuta, baina gonbidatutako enpresetatik bakar bat ere ez zen aurkeztu. Baldintza berberetan egin zaio esleipena enpresa horri.
Orobat, jakinarazi da Santiago Lesmesi esleitu zaiola, 4.000 euroren truke (BEZa kanpo), gidaliburu baten prestaketa, berdintasun arloko klausulak pleguetan sartzeko.
Orobat, beste aholkularitza kontratu baten lizitazioa, zeina ere bete gabe gelditu baita. Interesa izan dezakeen enpresa batekin jarriko gara harremanetan.
- NUKFko burua, biharamunean, urriak 10, azalduko dela Parlamentuan, Toki Administrazioa Berrantolatzeko Legea dela eta.
- Toki Inbertsioen Plana.
- Hauteskunde elkarteekin eginiko jarduketak. Beste bilkura bat egingen da hauteskunde elkarteekin, baita Nafarroak Madrilan dituen senatari eta diputatuekin ere, urriaren 24an eta 25ean.
- NUKFren Plan Estrategikoa osatzeko taldea hilaren 23an elkartuko dela lehendabiziko aldiz.
- Tramitatzen ari diren lege xedapenak:
 - Desfibriladoreei buruzko foru dekretua.
 - Hutsik dauden etxebizitzaren erregistroari buruzko foru dekretua.
 - Gazteriaren tokiko kontseiluak arautzen dituen foru dekretua.
- Urriaren 5ean bilkura egin zela ADEMANekin, Zuzentze Kontseiluko kudeatzailearekin eta Landa Garapeneko Departamentuko Fermín Olaverekin.
Helarazi ziguten zenbait arazo daudela toki entitate batzuen pleguekin eta oihan aprobetxamenduekin.
Departamentuak proposatu zuen kasuak aztertzea eta konponbideak bilatzea arazoei.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

6. PUNTUA.- Galde-eskeak

Martin jaunak galdetu du abiadura mantsotzeko oztopoak zenbait udalerritan eta kontzejutan paratzeak ekarritako polemikaz.

Presidenteak adierazi du ukitutako entitate batzuek eskatuta (tartean Ziaurrizko Kontzejua) egin direla jarduketa batzuk.

Etxeberria jaunak proposatu du salbuespen bat ezartzea zirkulazio zergan auto elektrikoen alde.

Azaldu da horretarako aldaketa bat egin beharko litzatekeela Toki Ogasunei buruzko Foru Legean, eta jakinarazi da proposamen bat tramitatzen ari dela lege hori aldatzeko, zehazki, salbuespen bat ezartzeko desgaitasuna duten pertsonen ibilgailuen alde.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.